

# BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 5501

*EBAZPENA, 2014ko abenduaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez aukeratzeko baitira EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeak, jarduera proiektuak egin ditzaten hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaz egindako deialdian oinarrituta, eta Hautaketa Batzordeak izapidetutako espedienteak aztertuta, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean jasotzen diren itunpeko ikastetxeak aukeratzea, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren esparruan jarduera proiektuak egin ditzaten 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetarako.

Bigarrena.– II eranskinean jasotzen diren eskaerak gaitzestea bertan jasotzen diren arrazoiengatik

Hirugarrena.– Hautatutako ikastetxe bakoitzari bi mila (2.000) euroko diru-ekarpen bat egingo zaio goian jasotako deialdian aipatzen diren hiru ikasturteetarako, irakasleak zein eskola-komunitatea trebatzeko eta proiektua koordinatzeko eta zabalkundea egiteko jardueretarako. Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren % 60, esleitutako diru-laguntza onartu bezain laster egingo da.

b) Gainerakoa –diru-laguntza osoaren % 40– «Hezkidetza - Diru-laguntzaren justifikazioa» agiria aurkeztu ondoren ordainduko da; 2015eko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar da agiri hori, behar bezala beteta.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 11.

Hezkuntzako sailburuordea,  
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

2014ko abenduaren 29a, astelehena

## I. ERANSKINA

Kodea	Ikastetxea	Lurraldea
010219	La Inmaculada ikastetxea	Araba
010248	Egibide	Araba
014502	Luis Elizalde ikastola	Bizkaia
014518	Kurutziaga ikastola	Bizkaia
014530	Resurreccion María de Azkue	Bizkaia
014554	Zubi Zaharra	Bizkaia
014561	Lauro ikastola	Bizkaia
014597	San José ikastetxea	Bizkaia
014676	Nuestra Señora de Begoña ikastetxea	Bizkaia
014680	Otxarkoaga lanbide ikastetxea	Bizkaia
014726	Nevers hezkuntza kooperatiba	Bizkaia
014727	San Antonio Santa Rita	Bizkaia
014733	Eskolabari	Bizkaia
014761	Avellaneda ikastetxea	Bizkaia
014767	Bienaventurada Virgen María Irlandesas Casa de Lejona	Bizkaia
014769	Nuestra Señora de las Mercedes ikastetxea	Bizkaia
014777	Fundacion Escuelas Ventades	Bizkaia
014792	Nuestra Señora del Carmen ikastetxea	Bizkaia
014796	Santa Maria ikastetxea	Bizkaia
014810	Calasanz	Bizkaia
014817	Amor Misericordioso ikastetxea	Bizkaia
014824	San Viator ikastetxea	Bizkaia
014828	Maristas San Miguel ikastetxea	Bizkaia
014838	Fundación Escuelas Jado	Bizkaia
015189	Txintxirri ikastola	Bizkaia
012310	Anoetako Herri ikastola	Gipuzkoa
012372	Zurriola ikastola	Gipuzkoa
012375	Usabalgo Laskorain ikastola	Gipuzkoa
012384	Urretxu Zumarraga ikastola	Gipuzkoa
012473	Sagrado Corazón Telleri-Alde ikastetxea	Gipuzkoa
012512	Francisco Coll hezkuntza fundazioa	Gipuzkoa
012656	Escolapios	Gipuzkoa

## II. ERANSKINA

Kodea	Ikastetxea	Arrazoa
010616	NC learning investigation center	Deialdiaren balditza ez betetzea
010228	Presentación de María	Uko egitea
012568	Hirukide Jesuitinak	Uko egitea